


Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Animaliek epaitutako animaliak



Ezkerrean, txerri baten kontrako epaiketa, Alemanian. Eskuinean, Falaiseko txerri emea urkamendian, gizakien arropak jantzita.

FALAISE (FRANTZIA), 1386. Txerri eme bat epaitu zuten haur baten hil-keta leporatuta. Guiot de Monfort udal idazkariak xehetasun osoz jaso zituen auziaren nondik norakoak. Txerriak haurrari aurpegia eta besoak jan omen zizkion. Hilketaren berri izan zuenean, Pere Lavengin bizkondeak animalia epaitzeko agindua eman zuen, eta heriotzara kondenatu zuten. Giza arropaz jantzita eraman zuten urkamendira, eta han borrarokak muturra eta eskuak moztu zizkion, hiltzaileak biktimari egindakoaren ordainetan. Ondoren, atzeko laurdenetik zintzilikatu zuten, eta berehala hil zen, odolustuta. Inguruko abeltzainei txerri guztiak plazara eramateko agindu zitzaion, kondentatuaren generokideek zigorra eskarmentutzat har zezaten. Exekuzioa burututa, jendailak kondenatuaren gorpua zatikatu zuen, eta txerri erreki bazkaria prestatu.

Azken datu hori bitxia da, kondenatutako animaliak jatea ez baitzen ohikoa. Animaliak epaitzea, ordea, zentzuak agintzen duena baino ohikoagoa zen. 1161ean, Parisen beste txerri bat exekutatu zuten, erregezko hilketa leporatuta. Louis VI.aren seme Filipe printzeak zaldi istripua izan zuen, txerri baten erruz, non-bait. Eta txerria tripak aterata hil

zuten jendaurrean. 1572an, Toledon, haur bat jan zuen txerria exekutatu zuten; baina, horrez gain, sakrilegioa ere leporatu zioten haur gaixoaren haragi samurra ostiral santuan jateagatik.

Txerriak ez ziren izan epaitegiak zapaldu zituzten ugaztun (ez-gizaki) bakarrak. Jabeak hil arte adarkatutako idiak, ostiko egin zale ziren zaldiak, amorrudun txakurrak... urkatu, zatikatu edo burugabetu zituzten gizakiei kalteak eragiteagatik. Epaike-ta horietan, animaliek ez zuten aukerarik beren burua defendatzeko, eta errugabetzat jotzeko aukerak oso txikiak ziren. Hala ere, salbuespenak izan ziren: 1379an, Belgikako Saint-Marcel-le-Jeussery herrian, txakur saldo batek haur bat hil zuen, eta animaliak hiltzera kondenatu zituzten; baina Hubert de Poitiers apaizak saldoko txakur kumeentzat errukia eskatu zuen eta, azkenean, epaileek animalia gazteenei zigorra barkatzea erabaki zuten.

Baina salbuespenak salbuespen, eta Jean Racine idazleak (1639-1699) ederki esan zuenez, "animalien aurkako epaiketetan, benetako basapiztiak ez daude akusatuen aulkian eserita, akusatzaileen aulkian baizik".



Arrastoak

Condor Legioaren omenezko plaka bat kendu dute Madrilen

ALMUDENA hilerriko (Madril) hainbat oroigarri nazi eta frankista kentzeko eskatu zuen Madrilgo Alderdi Sozialistak 2010ean. Madrilgo Udalak (PP) "hildakoei bakean utzi behar" zaiela erantzun zuen orduan, eta Alderdi Sozialistaren jarrera "totalitarioa" zela eta "Espainiaren zatiketa areagotzen" zuela salatu zuen. Jakina, sinboloek hilerrian jarraitu zuten. Baina berriki Alemaniako Gobernuak izan da udalari eskaera luzatu diona eta, oraingoan bai, oroigarriak kentzen hasi dira. Lehena Condor Legioaren omenezko plaka izan da, eta, horrenbestez, Gernika bonbardatu zuen aire dibisioari ez zaio aitortzarik egiten Almudenan.

El País



Goian, Condor Legioaren omenezko plaka. Behean, plaka bera, testua ezabatuta.